

BEZEROEKIKO HARREMANA

Lehen aipatu dugunez, gure ideia enpresa nazionalak saltzea izango da eta enpresa garatzen doazen heinean, mundu osora esportatzea. Hortaz, gure bezeroak nazionalak izango dira hasieran.

Bestalde, gure harremana bezeroekin horrela izango da:

Alde batetik, gure produktuari buruzko informazio guztia eskaintzen duen online orri bat sortuko dugunez, bertan gure telefonoa agertuko da, eta horrela, bezeroek kontaktatu ahalko digute zalantzaren bat, edo eskaeraren bat baldin badute.

Bestetik, pertsonalki harremana ere izango dugu. Lokal bat alokatuko dugu hiri garrantzitsu guztietan, horrela edozein bezero etortzeko aukera izango du gure lokalera, edozein informazio edo egin duen eskaera bertan jaso ahal izateko. Bertan, lehen aipatutako online orriko deiak jasoko dira.

